firmes, civiles o canónicas, sujetas a inscripción, deberá promover ésta, y a tal efecto, remitirá testimonio bastante al encargado del Registro.

### **Artículo 26**

El encargado del Registro velará por la concordancia del Registro y la realidad, excitando al Ministerio fiscal, advirtiendo a los interesados y comunicándose con los demás órganos del Registro Civil.

### **Artículo 27**

El encargado del Registro competente calificará los hechos cuya inscripción se solicite por lo que resulte de las declaraciones y documentos presentados o del mismo Registro.

En cuanto a las declaraciones, la calificación comprenderá la capacidad e identidad del declarante. La de las sentencias y resoluciones se limitará a la competencia y clase de procedimiento seguido, formalidades extrínsecas de los documentos presentados y asientos del propio Registro.

### **Artículo 28**

Inmediatamente de formularse las declaraciones o de ser presentados los documentos necesarios, el encargado del Registro extenderá los asientos o dictará resolución razonada denegándolos. Si tuviere dudas fundadas sobre la exactitud de aquellas declaraciones, realizará antes de extenderlas, y en el plazo de diez días, las comprobaciones oportunas.

nonikoak, betearzteko eskumena izanik, inskripzioa sustatu beharko du, eta, ondore horretarako, behar besteko lekukotza bidaliko dio Erregistroko arduradunari.

### **26. artikulua**

Erregistroko arduradunak zainduko du Erregistroa eta errealitatea bat etortzea, horretarako Fiskaltza eragin, interesdunei ohartarazpenak egin eta Erregistro Zibileko beste organoekin harremanetan jarriko da.

### **27. artikulua**

Erregistro eskuduneko arduradunak egitateak kalifikatuko ditu, horien inskripzioa eskatzen bada adierazpenen eta aurkeztutako agirien ondorioz edo Erregistroaren ondorioz.

Adierazpenei dagokienez, kalifikazioak barneratuko ditu adierazlearen gaitasuna eta nortasuna. Epai eta ebazpenen kasuan, kalifikazioa mugatuko da eskumenera, gauzatutako prozedura-motara, aurkeztutako agirien kanpoko formalitateetara eta Erregistroko idazkunerara.

### **28. artikulua**

Adierazpenak egin edo beharrezkoak diren agiriak aurkeztu eta berehala, Erregistroko arduradunak idazkunak egingo ditu edo ebazpen arrazoitua emango du idazkunak ukatuz. Adierazpenon zehaztasunari buruz zalantza oinarritutakoak baditu, horiek egin aurretik eta hamar eguneko epean, beharrezko egiaztapenak burutuko ditu.

**Artículo 29**

Las decisiones del encargado del Registro son recurribles durante treinta días en vía gubernativa ante el Juez de primera instancia correspondiente, con apelación en igual tiempo ante la Dirección General, sin que quepa ulterior recurso, a salvo, cuando corresponda, la vía judicial ordinaria.

Entablado el recurso, quedan en suspenso los plazos establecidos para la inscripción correspondiente y la practica pende de la resolución definitiva.

**Artículo 30**

La inscripción se llevará a efecto en unidad de acto. En caso de interrupción se extenderá, en cuanto sea posible, nuevo asiento, en el que, ante todo, se expresará la interrupción sufrida y su causa. La inscripción interrumpida se cancelará haciendo referencia al nuevo asiento.

**Artículo 31**

La Oficina del Registro debe hallarse instalada dentro de la circunscripción del mismo. Los libros no pueden sacarse de ella a pretexto alguno, salvo peligro de destrucción.

**Artículo 32**

A efectos del Registro Civil son hábiles todos los días y horas del año.

**Artículo 33**

El Registro Civil se divide en cuatro Secciones denominadas: la primera, «Nacimientos y general»; la segunda

**29. artikulua**

Erregistroko arduradunak hartutako erabakien aurka errekurtoa jar daiteke, gobernu-bidean, hogeita hamar eguneko epean, lehen auzialdiko epaile eskudunaren aurrean; epe berean, gora jotzeko errekurtoa jar daiteke Zuzendaritza Nagusian, eta ezin da gero beste errekurto-rik jarri, bide judicial arrunta bidezkoa denean izan ezik.

Behin errekurtoa jarrita, kasuan kasuko inskripzioarentzat ezarritako epeak eteten dira, eta egindako inskripzioa behin betiko ebazpenaren menpe dago.

**30. artikulua**

Inskripzioa egintza-batasunean gauzatuko da. Geldiarazpena gertatuz gero, ahalik arinen idazkun berria egingo da, eta idazkun horretan aipatuko dira, batez ere, gertatutako geldiarazpena eta horren arrazoa. Geldiarazitako inskripzioa ezeztuko da idazkun berria aipatuz.

**31. artikulua**

Erregistroko bulegoa erregistro horren mugapearen barruan egon behar da. Ezin da inolako aitzakiarik erabili liburuak bulegotik ateratzeko, horiek suntsitzeko arriskua dagoenean izan ezik.

**32. artikulua**

Erregistro Zibilaren ondoretarako, baliiodunak dira urteko egun eta ordu guztiak.

**33. artikulua**

Erregistro Zibila lau ataletan banatzen da: lehenengoa, «Jaiotzak eta orokorra»; bigarrena, «Ezkontzak»; hiru-

«Matrimonios»; la tercera, «Defunciones»; y la cuarta, «Tutelas y representaciones legales»

Cada una de las Secciones se llevará en libros distintos, formados con las cautelas y el visado reglamentarios.

#### **Artículo 34**

Los asientos se extenderán sin dejar folios o espacios en blanco, ni usar otras abreviaturas o guarismos que los reglamentariamente permitidos. Serán nulas las adiciones, apostillas, interlineados, raspaduras, testados o enmiendas que no se salven al pie del asiento antes de firmarlo.

#### **Artículo 35**

En las inscripciones constarán exclusivamente:

1. Los hechos de que hacen fe según su clase, con indicación, si fueren conocidas, de las circunstancias de la fecha, hora y lugar en que acaecen, y las demás exigidas en cada caso por la Ley o el Reglamento.

2. La declaración o documento auténtico en virtud del cual se practican.

3. La fecha de las mismas y los nombres de los funcionarios que las autoricen.

#### **Artículo 36**

El asiento practicado en virtud de declaración será suscrito por el declarante, y si no sabe o no puede, por dos testigos a su ruego, expresándose el nombre y apellidos de uno y otros.

El practicado en virtud de documento auténtico expresará su fecha y

garrena, «Heriotzak»; eta laugarrena, «Tutoretzak eta legezko ordezkarietak».

Atal bakoitza liburu desberdinetan egingo da, eta liburuok arauzko arreta eta ikus-onespenarekin osatuko dira.

#### **34. artikulua**

Idazkunak egingo dira folioak edo tarteak zuriz utzi gabe, eta arauz baimendutako laburdurak edo zifrak baino ez dira erabiliko. Deusezak izango dira eransketak, argibideak, lerroartekoak, urradurak, orbanak edo zuzenketak, idazkuna sinatu aurretik bere oinean ontzat hartu ez badira.

#### **35. artikulua**

Inskripzioetan jasoko dira soil-soilik:

1. Fede ematen duten egitateak, euren motaren arabera, horien data, ordua eta lekuari buruzko inguruabarrak, eza-gunak baldin badira, eta kasuan-kasuan legeak edo erregelamenduak eskatutako gainerakoak aipatuta.

2. Inskripzioak egiteko erabili den adierazpena edo agiri kautoa.

3. Inskripzioen data, eta horiek baimendu dituzten funtzionarioen izenak.

#### **36. artikulua**

Adierazpenaren ondorioz egindako idazkuna adierazleak sinatuko du, eta ez badaki edo ezin badu, horren eskabidez bi lekukok sinatuko dute; guztiek ere euren izen-abizenak adieraziko dituzte.

Agiri kautoaren ondorioz egindako idazkunak adieraziko ditu haren data eta

funcionario autorizante; si se trata de resolución judicial o administrativa, la fecha y autoridad que la dicta.

### Artículo 37

Los asientos se cerrarán con las firmas del encargado del Registro Civil y del Secretario, y una vez firmados no se podrá hacer en ellos rectificación, adición ni alteración de ninguna clase, sino en virtud de resolución firme obtenida en el procedimiento que corresponda, conforme a esta Ley.

### Artículo 38

A petición del Ministerio fiscal o de cualquier interesado, se anotará, con valor simplemente informativo y con expresión de sus circunstancias:

1. El procedimiento judicial o gubernativo entablado que pueda afectar al contenido del Registro.
2. El hecho cuya inscripción no pueda extenderse por no resultar en alguno de sus extremos legalmente acreditado.
3. El hecho relativo a españoles o acaecido en España que afecte al estado civil según la ley extranjera.
4. La sentencia o resolución extranjera que afecte también al estado civil, en tanto no se obtenga el «exequátur».
5. La sentencia o resolución canónica cuya ejecución en cuanto a efectos civiles no haya sido decretada aún por el Tribunal correspondiente.

funtzionario eskueslea; ebazpen judiziala edo administratiboa izanez gero, data eta ebazpena eman duen agintaria.

### 37. artikulua

Idazkunak itxiko dira Erregistro Zibileko arduradunaren eta idazkariaren sinadurekin; behin sinatuta, ezingo da haietan egin zuzenketarik, gehiketarik, ezta inongo aldaketarik ere, prozedura egokian lortutako ebazpen irmoaren bidez ez bada, lege honen arabera.

### 38. artikulua

Fiskaltzak edo interesdunetatik edozeinek hala eskatuta, idatzoharra egingo da informazio-balio soilarekin eta inguruabarrak aipatuz, hurrengoak jasotzeko:

1. Hasitako prozedura judiziala edo gobernu-prozedura, horiek Erregistroko edukiaren gain eragina izan dezakeenean.
2. Egitate zehatza, horren inskripzioa ezinezkoa denean, haren goraberaren bat legearen araberako egiazta ez delako.
3. Espainiarrekin zerikusia duen egitatea, edo Espainian gertatutakoa, horiek atzerriko legearen arabera egoera zibilaren gain eragina izan duenean.
4. Egoera zibilaren gain eragina duen atzerriko epai edo ebazpena, «exequatur»a lortzen ez den bitartean.
5. Epai edo ebazpen kanonikoa, horren betearazpena, ondore zibilei dagokienez, auzitegi eskudunak halakoa oraindik dekretatu ez duenean.

6. Y aquellos otros hechos cuya anotación permitan la Ley o el Reglamento.

En ningún caso las anotaciones constituirán la prueba que proporciona la inscripción.

### **Artículo 39**

Al margen de la inscripción de nacimiento se pondrá nota de referencia a las de matrimonio, tutela, representación y defunción del nacido. En estas inscripciones se hará constar, a su vez, referencia a la de nacimiento.

## **TÍTULO V DE LAS SECCIONES DEL REGISTRO**

### **SECCIÓN I DE NACIMIENTOS Y GENERAL**

#### **CAPÍTULO I De la inscripción de nacimientos**

### **Artículo 40**

Son inscribibles los nacimientos en que concurren las condiciones establecidas en el artículo 30 del Código Civil.

### **Artículo 41**

La inscripción hace fe del hecho, fecha, hora y lugar del nacimiento, del sexo y, en su caso, de la filiación del inscrito.

### **Artículo 42**

La inscripción se practica en virtud de declaración de quien tenga conoci-

6. Bestelako egitateak, legeak edo erregelamenduak horien idatzoharra egitea ahalbidetzen duenean.

Idatzoharrak ez dira inoiz izango inskripzioak egiteko besteko frogak.

### **39. artikulua**

Jaiotza-inskripzioaren orri-bazterrean, jaiotza ezkontza-, tutoretza-, ordezkari-tza- eta heriotza-inskripzioei buruzko erreferentzia-oharra jarriko da. Inskripzio horietan agerraraziko da, aldi berean, jaiotza-inskripzioaren erreferentzia.

## **V. TITULUA ERREGISTROKO ATALAK**

### **I. ATALA JAIOTZAK ETA OROKORRA**

#### **I. KAPITULUA Jaiotzen inskripzioa**

### **40. artikulua**

Inskribatzeko moduko jaiotzak dira Kode Zibilaren 30. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen dituztenak.

### **41. artikulua**

Inskripzioak fede ematen du, egitateari, datari, orduari, jaioterriari, sexuari, eta, hala denean, inskribatutakoaren seme-alabatasunari buruz ere.

### **42. artikulua**

Inskripzioa egiten da jaiotzaren berri ziurra izan duenak egindako adierazpe-

miento cierto del nacimiento. Esta declaración se formulará entre las veinticuatro horas y los ocho días siguientes al nacimiento, salvo los casos en que el Reglamento señale un plazo superior.

### Artículo 43

Están obligados a promover la inscripción por la declaración correspondiente:

1. El padre.
2. La madre.
3. El pariente más próximo o, en su defecto, cualquier persona mayor de edad presente en el lugar del alumbramiento al tiempo de verificarse.
4. El jefe del establecimiento o el cabeza de familia de la casa en que el nacimiento haya tenido lugar.
5. Respecto a los recién nacidos abandonados, la persona que los haya recogido.

### Artículo 44

Sin perjuicio de lo establecido en el artículo anterior, en todo caso el médico, comadrona o ayudante técnico sanitario que asista al nacimiento estará obligado a dar inmediatamente parte escrito del mismo al encargado del Registro. En defecto del parte, el encargado, antes de inscribir, deberá comprobar el hecho por medio del médico del Registro Civil o por cualquier otro procedimiento reglamentario.

### Artículo 45

Las personas obligadas a declarar o dar el parte de nacimiento están tam-

naren bidez. Adierazpen hau jaiotzaren osteko hogeita lau ordu eta zortzi egunen artean egingo da, erregelamenduak epe luzeagoa aipatzen duenean izan ezik.

### 43. artikulua

Adierazpen egokiaren bidez inskripzioa sustatzera behartuta daude:

1. Aita.
2. Ama.
3. Ahaidetik hurbilena, edo, halakorik izan ezean, erditzea gertatu denean bertan dauden adin-nagusikoetatik edozein.
4. Jaiotza zein establezimendutan gertatu eta bertako burua edo zein etxetan gertatu eta hango familia-burua.
5. Bertan behera utzitako jaioberriei dagokienez, horiek jaso dituen pertsona.

### 44. artikulua

Aurreko artikuluan ezarritakoari kalterik egin gabe, jaiotzan lagundu duen medikua, emagina edo osasun-laguntzaile teknikoa behartuta egongo da beti Erregistroko arduradunari haren idatzizko parte berehala ematera. Partetik izan ezean, arduradunak, inskripzioa egin aurretik, egitatea egiaztatu beharko du Erregistro Zibileko medikuaren bitartez edo arauzko beste edozein prozeduraren bitartez.

### 45. artikulua

Jaiotza adieraztera edo horren parte ematera behartutako pertsonak,

bién obligadas a comunicar en la misma forma el alumbramiento de las criaturas abortivas de más de ciento ochenta días de vida fetal, aproximadamente. En el Registro Civil se llevará un legajo con las declaraciones y partes de estos abortos.

### Artículo 46

La adopción, las modificaciones judiciales de capacidad, las declaraciones de concurso, quiebra o suspensión de pagos, ausencia o fallecimiento, los hechos relativos a la nacionalidad o vecindad y, en general, los demás inscribibles para los que no se establece especialmente, que la inscripción se haga en otra Sección del Registro, se inscribirán al margen de la correspondiente inscripción de nacimiento.

Cuantos hechos afecten a la patria potestad, salvo la muerte de los padres, se inscribirán al margen de la inscripción de nacimiento de los hijos.

## CAPÍTULO II De la filiación

### Artículo 47\*

En la inscripción de nacimiento constará la filiación materna siempre que en ella *coincidan la declaración y el parte o comprobación reglamentaria.*

---

\* Véase sobre este artículo la STS 776/1999, de 21 de septiembre, fundamento jurídico 5, en el que se deroga por inconstitucionalidad sobrevenida la parte recogida en letra cursiva.

orobat, behartuta daude modu berean abortukinen erditzea komunikatzera, fetuek, gutxi gorabehera, ehun eta laurogei egun baino gehiagoko bizitza izan badute. Erregistro Zibilean paper-sorta bat osatuko da abortu horien inguruko adierazpen eta parteekin.

### 46. artikulua

Adopzioa, gaitasunaren aldaketa judicialak, konkurtso, porrot edo ordainketa-etendurari buruzko adierazpenak, absentzia edo heriotza, naziotasunarekin edo auzotasunarekin zerikusia duten egitateak, eta, orokorrean, inskribatzeko modukoak diren gainerakoak, jaiotza-inskripzio egokiaren orri-bazterrean inskribatuko dira, horien inskripzioa Erregistroko beste atalen batean egin behar dela beren beregi ezartzen ez bada.

Guraso-ahalaren gain eragina duten egitateak, gurasoen heriotza izan ezik, seme-alaben jaiotza-inskripzioaren orri-bazterrean inskribatuko dira.

## II. KAPITULUA Seme-alabatasuna

### 47. artikulua\*

Jaiotza-inskripzioan amarengandiko seme-alabatasuna jasoko da, *balidin eta horretan bat badatoz adierazpena eta partea edo arauzko egiaztapena.*

---

\* Artikulu honi buruz, ikus irailaren 21eko 776/1999 AGE, 5. oinarri juridikoa. Bertan indargabetzen da letra etzanez jarritako esamoldea, konstituzio-aurkakotasunaren zioz.



No constando el matrimonio de la madre ni el reconocimiento por ésta de la filiación, el encargado del Registro, sin demora, notificará el asiento personalmente a la interesada o a sus herederos.

La mención de esta filiación podrá suprimirse en virtud de sentencia o por desconocimiento de la persona que figura como madre, formalizado ante el encargado del Registro el cual lo inscribirá marginalmente. Este desconocimiento no podrá efectuarse transcurridos quince días de aquella notificación. La supresión de la mención será notificada del mismo modo al inscrito o, si hubiere fallecido, a sus herederos; en su caso, si el representante legal del inscrito no fuere conocido, esta notificación se hará al Ministerio fiscal.

#### **Artículo 48**

La filiación paterna constará en la inscripción de nacimiento o a su margen, por referencia a la inscripción de matrimonio de los padres o por inscripción del reconocimiento.

#### **Artículo 49**

El reconocimiento puede hacerse con arreglo a las formas establecidas en el Código Civil o mediante declaración del padre o de la madre, en cualquier tiempo, ante el encargado del Registro, inscrita al margen y firmada por aquellos. En este último supuesto deberá concurrir también el consenti-

Amaren ezkontza jasotzen ez bada, ezta horrek egindako seme-alabatasunaren aitortpena ere, Erregistroko arduradunak, luzamendurik gabe, idazkuna jakinaraziko die modu pertsonalean emakumezko interesdunari edo beraren jaraunslerei.

Seme-alabatasun horren aipamena ezabatu ahal izango da, epai bidez edo ama bezala agertutakoak horren berri ez izateagatik; azken hori Erregistroko arduradunaren aurrean gauzatuko da, eta horrek orri-bazterrean inskribatuko du. Ama bezala agertutakoak ezin izango du adierazi haren berririk ez duela izan, jakinarazpen hartatik hamabost egun igaro ondoren. Aipamenaren ezabatzea modu berean jakinaraziko zaio inskribatutakoari, edo, hilda egonez gero, beraren jaraunslerei; hala denean, inskribatutakoaren legezko ordezkaria ezaguna ez bada, jakinarazpena Fiskaltzari egingo zaio.

#### **48. artikulua**

Aitarengandiko seme-alabatasuna jasoko da jaiotza-inskripzioan edo horren orri-bazterrean, gurasoen ezkontza-inskripzioari aipamena eginda edo aitortpena inskribatuta.

#### **49. artikulua**

Aitortpena egin daiteke Kode Zibilean ezarritako formen arabera, edo amak zein aitak edozein unetan eta Erregistroko arduradunaren aurrean egindako adierazpenaren bidez, orri-bazterrean inskribatuta eta haiek sinatuta. Azken kasu horretan, beharrezkoa izango da, halaber, seme edo alabaren adostasuna

miento del hijo o la aprobación judicial, según dispone dicho Código.

Podrá inscribirse la filiación natural mediante expediente gubernativo aprobado por el Juez de primera instancia, siempre que no hubiera oposición del Ministerio fiscal o de parte interesada notificada personal y obligatoriamente, si concurre alguna de las siguientes circunstancias:

1.<sup>a</sup> Cuando exista escrito indubitable del padre o de la madre en que expresamente reconozca la filiación.

2.<sup>a</sup> Cuando el hijo se halle en la posesión continua del estado de hijo natural del padre o de la madre, justificada por actos directos del mismo padre o de su familia.

3.<sup>a</sup> Respecto de la madre, siempre que se pruebe cumplidamente el hecho del parto y la identidad del hijo.

Formulada oposición, la inscripción de la filiación sólo puede obtenerse por el procedimiento ordinario.

## Artículo 50

No podrá extenderse asiento alguno contradictorio con el estado de filiación que prueba el Registro mientras no se disponga otra cosa por sentencia firme dictada en juicio declarativo con audiencia del Ministerio fiscal.

## Artículo 51

No podrán manifestarse los asientos ni librarse certificación que contenga el dato de una filiación ilegítima o des-

edo onepen judiziala, harako kodeak xedatutakoaren arabera.

Naturaren araberako seme-alabatasuna inskribatu ahal izango da lehen auzialdiko epaileak onetsitako gobernu-espediterearen bidez, baldin eta Fiskaltza edo nahitaezko jakinarazpen pertsonala jaso duen alderdi interesduna aurka ez badago eta hurrengo inguruabarretatik edozein gertatzen bada:

1. Amaren edo aitaren zalantzarik gabeko idazkia egotea, eta, bertan, seme-alabatasuna beren beregi aitortzea.

2. Semeak edo alabak aitaren edo amaren naturaren arabera seme edo alabaren etengabeko egoera-eruditza izatea, gurasoaren edo familiaren zuzeneko egintzekin egiaztatuta.

3. Amari dagokionez, erditzea eta seme edo alabaren nortasuna bete-betean frogatzea.

Behin aurkakotasuna aurkeztuta, seme-alabatasunari buruzko inskripzioa prozedura arruntaren bidez bakarrik lortu ahal da.

## 50. artikulua

Ezin izango da inolako idazkunik egin Erregistroak frogatutako seme-alabatasun egoerarekin bat ez badator, salbu eta bestelakoa xedatzen denean adierazpeneko epailetan emandako epai irmoaren bidez, betiere Fiskaltzaren entzunaldiarekin.

## 51. artikulua

Ezin izango da idazkunik agertu, ezta ziurtagiririk eman ere, horrek legitimoa ez den edo ezezaguna den seme-alabata-

conocida, sino a las personas a quienes directamente afecte o, con autorización del Juez de primera instancia, a quienes justifiquen interés especial.

### Artículo 52

Fuera de la familia no podrá hacerse distinción de españoles por la clase de filiación.

## CAPÍTULO III

### Del nombre y apellidos

#### Artículo 53

Las personas son designadas por su nombre y apellidos, paterno y materno, que la Ley ampara frente a todos.

#### Artículo 54

En la inscripción se expresará el nombre que se da al nacido, si bien no podrá consignarse más de un nombre compuesto ni más de dos simples.

Quedan prohibidos los nombres que objetivamente perjudiquen a la persona, así como los diminutivos o variantes familiares y coloquiales que no hayan alcanzado sustantividad, los que hagan confusa la identificación y los que induzcan en su conjunto a error en cuanto al sexo.

No puede imponerse al nacido nombre que ostente uno de sus hermanos, a no ser que hubiere fallecido, así como tampoco su traducción usual a otra lengua.

sun bati buruzko datua barneratzen duenean, ezpada zuzenean ukitutako pertsoneri, edo, lehen auzialdiko epaileak baimenduta, interes berezia egiaztatzen dutenei.

### 52. artikulua

Familiatik kanpo ezin izango da espainiarren artean bereizketarik egin seme-alabatasun mota dela eta.

## III. KAPITULUA

### Izen-abizenak

#### 53. artikulua

Pertsonak euren izenarekin eta aita nahiz amaren abizenekin izendatzen dira; legeak guztien aurrean babes-ten ditu izen-abizenok.

#### 54. artikulua

Inskripzioan adieraziko da jaiolari emandako izena, baina ezin izango da izen konposatu bat baino gehiago jaso, ezta bi soil baino gehiago ere.

Debekatuta daude pertsoneri kalte objektiboa egiten dieten izenak, baita txikigarriak edo familiako aldaerak eta funtsik lortu ez duten lagunartekoak ere, identifikazioa zaildu egiten dutenak eta horien osotasunean sexuari buzur okerra eragiten dutenak.

Ezin zaio jaiolari ezarri horren neba-arreba batek duen izena, hilda dagoenean izan ezik, ezta hark beste hizkuntza batean duen ohiko itzulpena ere.

A petición del interesado o de su representante legal, el encargado del Registro sustituirá el nombre propio de aquél por su equivalente onomástico en cualquiera de las lenguas españolas.

### Artículo 55

La filiación determina los apellidos.

En los supuestos de nacimiento con una sola filiación reconocida, ésta determina los apellidos, pudiendo el progenitor que reconozca su condición de tal determinar, al tiempo de la inscripción, el orden de los apellidos.

El orden de los apellidos establecido para la primera inscripción de nacimiento determina el orden para la inscripción de los posteriores nacimientos con idéntica filiación.

Alcanzada la mayoría de edad, se podrá solicitar la alteración del orden de los apellidos.

El encargado del Registro impondrá un nombre y unos apellidos de uso corriente al nacido cuya filiación no pueda determinarlos.

El encargado del Registro, a petición del interesado o de su representante legal, procederá a regularizar ortográficamente los apellidos cuando la forma inscrita en el Registro no se adecue a la gramática y fonética de la lengua española correspondiente.

### Artículo 56

En la escritura de adopción se puede convenir que el primer apellido del

Interesdunak edo horren legezko ordezkariak hala eskatuta, Erregistroko arduradunak haren izen berezia ordetuko du, horrek Espainiako hizkuntzetatik edozeinetan duen onomastika-baliokidearekin.

### 55. artikulua

Seme-alabatasunak abizenak eratoritzen ditu.

Jaiotzaren inguruan seme-alabatasun bat bakarrik aitortu bada, horrek eratorzen ditu abizenak; gurasoak bere burua halakotzat aitortzen badu, abizenen hurrenkera zehaztu ahal izango du inskripzio-unean.

Jaiotzaren lehenengo inskripziorako ezarritako abizen-hurrenkerak eratoritzen du seme-alabatasun berberarekin gero gertatzen diren jaiotzen inskripziorako hurrenkera.

Adin-nagusitasuna lortzean, abizenen hurrenkera aldatzea eskatu ahal izango da.

Erregistroko arduradunak erabilera arrunteko izen bat eta abizen batzuk ezarriko dizkio jaioari, horren seme-alabatasunak halakoak zehaztu ezin baditu.

Interesdunak edo horren legezko ordezkariak hala eskatuta Erregistroko arduradunak abizenen ortografia erregularizatuko du, Erregistroan inskribatutako forma egokia ez bada Espainiako hizkuntza horren gramatika eta fonetikaren arabera.

### 56. artikulua

Adopzioaren eskrituran hitzartu ahal da adopzio-hartzaile edo adopzio-har-

adoptante o adoptantes se anteponga a los de la familia natural del adoptado. Los apellidos no naturales pueden ser sustituidos por los de los adoptantes.

### Artículo 57

El Ministerio de Justicia puede autorizar cambios de nombres y apellidos, previo expediente instruido en forma reglamentaria.

Son requisitos necesarios de la petición de cambio de apellidos:

1. Que el apellido en la forma propuesta constituya una situación de hecho no creada por el interesado.
2. Que el apellido o apellidos que se tratan de unir o modificar pertenezcan legítimamente al peticionario.
3. Que provenga de la línea correspondiente al apellido que se trata de alterar.

Podrá formularse oposición fundada únicamente en el incumplimiento de los requisitos exigidos.

### Artículo 58

No será necesario que concurra el primer requisito del artículo anterior para cambiar o modificar un apellido contrario al decoro o que ocasione graves inconvenientes, o para evitar la desaparición de un apellido español.

Cuando se den circunstancias excepcionales, y a pesar de faltar los requisitos que señala dicho artículo, podrá accederse al cambio por Decreto a

tzaileen lehen abizena naturaren araberako adoptatuaren familiak dituenen aurretik jartzea. Naturaren araberakoak ez diren abizenen orde, adopzio-hartzaileenak jar daitezke.

### 57. artikulua

Justizia Ministerioak baimena eman dezake, izen-abizenen aldatetako egiteko, aurretiaz espedientearen izapidetza arauz eginda:

Abizenak aldatzeko, eskaeraren nahitaezko betekizunak dira:

1. Abizenak, proposatu izan den modu horretan, interesdunak sortu ez duen egiteko egoera eratzea.
2. Batu edo aldatu nahi den abizena edo abizenak modu legitimoan eskatzailearenak izatea.
3. Aldatu nahi den abizena zein lerrotakoa izan eta lerro horretatik etortzea.

Aurkakotasuna aurkeztu ahal izango da, eskatutako betekizunen ez-betetze horretan oinarritzen denean bakarrik.

### 58. artikulua

Ez da beharrezkoa izango aurreko artikuluko lehen betekizuna gertatzea abizen bat aldatzeko edo aldarazteko, hori deduaren aurkakoa denean edo eragozpen handiak sortzen dituenean, ezta Espainiako abizen baten desagertzea saihesteko ere.

Salbuespeneko inguruabarrak gertatzean, eta aipatu artikuluan adierazitako betekizunak izan ez arren, aldatzea onartu ahal izango da dekretu

propuesta del Ministerio de Justicia, con audiencia del Consejo de Estado.

En todos estos casos, la oposición puede fundarse en cualquier motivo razonable.

## Artículo 59

El Juez de primera instancia puede autorizar, previo expediente:

1. El cambio del apellido Expósito u otros análogos, indicadores de origen desconocido, por otro que pertenezca al peticionario o, en su defecto, por un apellido de uso corriente.

2. El de nombres y apellidos impuestos con infracción de las normas establecidas.

3. La conservación por el hijo natural o sus descendientes de los apellidos que vinieron usando, siempre que insten el procedimiento dentro de los dos meses siguientes a la inscripción del reconocimiento o, en su caso, a la mayoría de edad.

4. El cambio del nombre por el impuesto canónicamente, cuando éste fuere el usado habitualmente.

5. La traducción de nombre extranjero o adecuación gráfica al español de la fonética de apellidos también extranjeros.

## Artículo 60

Para el cambio de nombre y apellidos a que se refiere el artículo anterior se requiere, en todo caso, justa causa y que no haya perjuicio de tercero.

bidez, Justizia Ministerioak hala proposatuta, Estatu Kontseiluaren entzualdiarekin.

Kasu horietan guztietan, aurkakotasuna edozein zio arrazoitutan oinarri daiteke.

## 59. artikulua

Lehen auzialdiko epaileak baimen ditzake, aurretiazko espedientearekin:

1. «Expósito» eta antzeko abizenek jatorri ezezaguna adierazten dutenez gero, horien ordeztu, eskatzailearen beste abizen bat jartzea, edo, halakorik izan ezean, erabilera arrunteko abizen bat.

2. Arauak hautsiz ezarritako izen-abizenak aldatzea.

3. Naturaren araberako seme nahiz alabak edo horien ondorengoek erabilitako abizenei eustea, baldin eta prozedura eragiten badute aitorten-inskripzioaren osteko, edo, hala denean, adin-nagusitasunaren osteko bi hilabeteetan.

4. Izenaren ordeztu, modu kanonikoan ezarritakoa jartzea, hori bada erabili ohi dena.

5. Atzerriko izena itzultzea edo atzerriko abizenen fonetika gaztelanien grafiara egokitzea.

## 60. artikulua

Aurreko artikulua aitapatutako izen-abizenak aldatzeko, nahitaezkoa da beti arrazoi zuzena izatea eta hirugarrenari kalterik ez egitea.

**Artículo 61**

El cambio gubernativo de apellidos alcanza a los sujetos, a la patria potestad y también a los demás descendientes que expresamente lo consientan.

**Artículo 62**

Las autorizaciones de cambios de nombre o apellidos no surten efecto mientras no se inscriban al margen de la correspondiente inscripción de nacimiento.

## CAPÍTULO IV

**De la nacionalidad y vecindad civil****Artículo 63**

La concesión de nacionalidad por residencia se hará previo expediente, por el Ministerio de Justicia.

También es de la competencia de este Ministerio la tramitación de los expedientes de concesión de cartas de naturaleza o de recuperación por concesión graciosa del Jefe del Estado.

**Artículo 64**

A falta de disposición especial, es funcionario competente para recibir las declaraciones de conservación o modificación de nacionalidad o vecindad, el mismo que determinan las reglas sobre opción de nacionalidad.

Cuando dicho funcionario no sea el encargado del mismo Registro donde conste inscrito el nacimiento, levantará acta con las circunstancias exigidas para la inscripción, y la remitirá al Re-

**61. artikulua**

Abizenen aldaketa gubernatiboak eragina du subjektuengan, guraso-ahalaren gain eta beren beregi adostasuna eman duten gainerako ondorengoengan.

**62. artikulua**

Izen-abizenak aldatzeko baimenek ez dute ondorerik sortzen, jaiotza-inskripzio egokiaren orri-bazterrean inskribatzen ez diren bitartean.

## IV. KAPITULUA

**Naziotasuna eta auzotasun zibila****63. artikulua**

Justizia Ministerioak emango du, aurretiazko espedientearekin, bizilekua izatearen ondoriozko naziotasuna.

Ministerio horren eskumena da, berbat, herritartze-agiriak emateari buruzko espedienteen izapidetza edo estatuko buruak graziaz emandako berreskuratze-espedienteen izapidetza.

**64. artikulua**

Xedapen berezirik izan ezean, naziotasunari edo auzotasunari buruzko euste- edo aldatze-adierazpenak jasotzeko, funtzionario eskuduna da, naziotasuna aukeratzeari buruzko erregelak zehazten duten funtzionario bera.

Funtzionario hori ez denean jaiotza inskribatuta dagoen Erregistroko arduraduna, akta egingo du inskripziorako beharrezkoak diren inguruabarrekin, eta akta hori Erregistro eskudunari bi-

gistro competente para la práctica de la inscripción marginal correspondiente.

Se considera fecha de la inscripción, a partir de la cual surten sus efectos tales declaraciones, la del acta que constará en dicho asiento.

### **Artículo 65**

La declaración a que se refiere el artículo 26 del Código Civil sólo puede hacerse dentro de un año, a contar de la fecha en que la Ley del país de residencia atribuya la nacionalidad extranjera o desde la mayor edad o emancipación del declarante, si la Ley extranjera la hubiere atribuido antes.

Una vez prestada la declaración de querer conservar la nacionalidad o vecindad civil, no es necesario reiterarla, cualesquiera que sean el tiempo transcurrido o los cambios de residencia.

Tampoco necesita prestar declaración de conservarla quien haya declarado su voluntad de adquirir la misma nacionalidad o vecindad.

### **Artículo 66**

Se inscribirán en el Registro Civil español las declaraciones y demás hechos que afecten a la condición jurídica de español o de nacional de país iberoamericano o de Filipinas de que, respectivamente, gocen, conforme a los Convenios los nacionales de estos países o los españoles.

El encargado del Registro está obligado a comunicar estas inscripciones a la Dirección General de los Registros y del Notariado.

daliko dio orri-bazterreko inskripzio egokia egin dezan.

Inskripzio-datatzat hartuko da aipatu idazkunean jasotako aktarena; horrelako adierazpenek euren ondoreak sortzen dituzte data horretatik aurrera.

### **65. artikulua**

Kode Zibilaren 26. artikulua aipatutako adierazpena urtebetean bakarrik egin daiteke, bizilekuaren herriko legeak atzerriko naziotasuna eratxiki duen datatik zenbatuta, edo adin-nagusitasunetik nahiz adierazlearen emantzipaziotik zenbatuta, atzerriko legeak hura lehenago eratxiki badu.

Behin naziotasunari edo auzotasun zibilarri eusteko adierazpena eginda, ez da beharrezkoa hori errepikatzea, igarotako denbora edo bizileku-aldaketak edozein izanda ere.

Halaber, hari eusteko ez du adierazpenik egin behar naziotasun edo auzotasun bera eskuratzeko borondatea adierazi duenak.

### **66. artikulua**

Espainiako Erregistro Zibilean inskribatutako dira adierazpenak eta gainerako egitateak, baldin eta horiek espainiarren izaera juridikoa edo Iberoamerikako nahiz Filipinetako nazionalarena ukitzen badute, hura herrialdeotako nazionalak edo espainiarrek hitzarmenen arabera izanik.

Erregistroko arduraduna behartuta dago inskripzio horiek Erregistroen eta Notariotzaren Zuzendaritza Nagusiarri komunikatzera.



**Artículo 67**

La pérdida de la nacionalidad se produce siempre de pleno derecho, pero debe ser objeto de inscripción. Caso de no promover ésta el propio interesado, el encargado del Registro, previa su citación, practicará el asiento que proceda.

**Artículo 68**

Sin perjuicio de lo dispuesto en el título I, libro I, del Código Civil y en tanto no conste la extranjería de los padres, se presumen españoles los nacidos en territorio español de padres también nacidos en España.

La misma presunción rige para la vecindad.

## SECCIÓN II DE MATRIMONIOS

**Artículo 69**

La inscripción hace fe del acto del matrimonio y de la fecha, hora y lugar en que se contrae.

**Artículo 70**

Los efectos civiles del matrimonio canónico o civil se producirán desde la celebración. Para que los efectos sean reconocidos bastará la inscripción del matrimonio. Sin embargo, cuando la inscripción sea solicitada transcurridos cinco días, no perjudicará los derechos legítimamente adquiridos por terceras personas.

**67. artikulua**

Naziotasunaren galera eskubide osoz gertatzen da beti, baina inskribatu behar da. Interesdunak berak hori sustatzen ez badu, Erregistroko arduradunak, aurretiaz hari zitazioa eginez, bidezkoa den idazkuna egingo du.

**68. artikulua**

Kode Zibilaren I. liburuko, I. tituluari xedatutakoari kalterik egin gabe, eta gurasoen atzeritartasuna agertzen ez den artean, Espainiako lurraldean jaiotako espainiar direla uste izango da, gurasoak ere Espainian jaiotakoak badira.

Presuntzio bera aplikatzen zaio autotasunari.

## II. ATALA EZKONTZAK

**69. artikulua**

Inskripzioak fede ematen du, ezkontzaren egintzari, eta beraren data, ordu eta lekuari buruz.

**70. artikulua**

Ezkontza kanoniko edo zibilaren ondore zibilak ezkontza egiten denetik sortuko dira. Ondoreak aitortuak izan daitezten, nahikoa izango da ezkontzaren inskripzioa. Hala ere, inskripzioa bost egun igaro ondoren eskatzen denean, horrek ez die kalterik egingo hirugarrenek modu legitimoan eskuratutako eskubideei.

Para los efectos civiles del matrimonio secreto o de conciencia, basta su inscripción en el Libro Especial de Matrimonios Secretos, pero no perjudicará los derechos legítimamente adquiridos por terceras personas, sino desde su publicación en el Registro Civil.

## Artículo 71

Están obligados a promover la inscripción del matrimonio canónico los propios contrayentes. A este fin pondrán por escrito en conocimiento del encargado del Registro competente con veinticuatro horas de anticipación, por lo menos, el día, hora y lugar del acto. El encargado dará recibo de dicho aviso y asistirá, por sí o por delegado, a la celebración, al solo efecto de verificar la inmediata inscripción.

En todo caso, la inscripción podrá hacerse en cualquier momento, aun fallecidos los contrayentes, a petición de cualquier interesado, mediante la simple presentación de copia auténtica del acta sacramental o de certificación eclesiástica acreditativa del matrimonio. La inscripción deberá ser comunicada al párroco.

## Artículo 72

Los que contrajeren matrimonio canónico «in articulo mortis» podrán dar aviso al encargado del Registro en cualquier instante anterior a la celebración, y acreditar de cualquier manera que cumplieron este deber.

Isilpeko edo kontzientziatzko ezkontzaren ondore zibiletarako, nahikoa da hori Isilpeko Ezkontzei buruzko Liburu Berezian inskribatzea, baina horrek ez die kalterik egingo hirugarrenek modu legitimoan eskuratutako eskubideei, Erregistro Zibilean argitaratzen denetik ez bada.

## 71. artikulua

Ezkongaiak eurak behartuta daude ezkontza kanonikoaren inskripzioa sustatzera. Horretarako, hogeita lau orduko aurrerapenarekin gutxienez, idatziz helaraziko dizkiote Erregistro eskuduneko arduradunari egintzaren eguna, ordua eta lekua, jakinaren gainean egon dadin. Arduradunak emango du aipatu abisuaren jaso-agiria, eta ezkontzara azalduko da, bera zuzenean edo eskuorde bidez, berehalako inskripzioa egiaztatzeko bakarrik.

Edozein kasutan ere, inskripzioa edozein unetan egin ahal izango da, ezkongaiak hilda egon arren, edozein interesdunek hala eskatuta, sakramentu-aktaren kopia kautoa edo ezkontza egiaztatzeko Elizak luzatutako ziurtagiria aurkeztuz, besterik gabe. Inskripzioa parrokoari komunikatu beharko zaio.

## 72. artikulua

Ezkontza kanonikoa «in articulo mortis» egiten dutenek Erregistroko arduradunari abisua eman ahal izango diote ezkontzaren aurreko edozein unetan, eta edozein modutara egiaztatu ahal izango dute eginbehar hori bete dutela.

El matrimonio secreto de conciencia celebrado ante la Iglesia no está sometido a lo dispuesto en el artículo anterior.

### **Artículo 73**

El funcionario que autoriza el matrimonio civil extenderá el acta, al mismo tiempo que se celebra, con los requisitos y circunstancias que determina esta Ley y con la firma de los contrayentes y testigos. Cuando el matrimonio se contrajera en país extranjero con arreglo a la forma del país o en cualquier otro supuesto en que no se hubiere levantado aquella acta, la inscripción sólo procederá en virtud de expediente.

### **Artículo 74**

Corresponden al Ministro de Justicia, a propuesta de la Dirección General, las dispensas para el matrimonio previstas en el Código Civil.

### **Artículo 75**

El mismo funcionario que autorice el acto de matrimonio entregará a los contrayentes, inmediatamente, un ejemplar del Libro de Familia en el que conste con valor de certificación la realidad del matrimonio.

### **Artículo 76**

Las sentencias y resoluciones sobre validez, nulidad o separación del matrimonio y cuantos actos pongan término a ésta se inscribirán al margen de la inscripción de matrimonio.

Elizan egindako kontzientziazko isilpeko ezkontza ez dago aurreko artikuluan xedatutakoaren menpe.

### **73. artikulua**

Funtzionarioak, ezkontza zibila baimentzean, akta egingo du, ezkontza egiten den une berean, legeak zehaztutako betekizun eta inguruabarrekin, eta ezkongaien eta lekukoen sinadurarekin. Ezkontza atzerrian egin bada bertako formaren arabera, edo, beste edozein kasu izanik, harako akta egin ez bada, inskripzioa bidezkoa izango da espediente bidez bakarrik.

### **74. artikulua**

Justizia Ministerioari dagozkio, Zuzendaritza Nagusiak hala proposatuta, Kode Zibilean ezkontzarako ezarri diren lekapenak.

### **75. artikulua**

Ezkontzaren egintza zein funtzionariok baimendu eta berorrek emango die ezkongaei, berehalakoan, Familia Liburuaren ale bat; bertan ezkontzaren egitasuna agertuko da ziurtagiri-balioarekin.

### **76. artikulua**

Ezkontzaren baliozkotasunari, deuseztasunari edo banantzeari buruzko epai eta ebazpenak, bai eta hura bukatzea dakarten bestelako egintzak ere, jaiotza-inskripzioaren orri-bazterrean inskribatuko dira.

### **Artículo 77**

Al margen también de la inscripción del matrimonio podrá hacerse indicación de la existencia de los pactos, resoluciones judiciales y demás hechos que modifiquen el régimen económico de la sociedad conyugal.

Sin perjuicio de lo dispuesto en el artículo 1.322 del Código Civil, en ningún caso el tercero de buena fe resultará perjudicado, sino desde la fecha de dicha indicación.

### **Artículo 78**

En el Libro Especial de Matrimonios Secretos del Registro Central se inscribirán:

1. Los matrimonios de conciencia celebrados ante la Iglesia, si lo solicitan ambos contrayentes.
2. Los matrimonios civiles celebrados en secreto por dispensa.

### **Artículo 79**

Sólo podrán solicitar la publicación del matrimonio secreto, la cual se hará mediante el traslado de la inscripción al Registro Civil correspondiente:

1. Ambos contrayentes de común acuerdo.
2. El cónyuge sobreviviente.
3. Tratándose de matrimonio canónico, el Ordinario en los casos en que cesa para él la obligación canónica del secreto.
4. Tratándose de matrimonio civil, cuando lo ordenare el Director general, con citación de los cónyuges, si uno o

### **77. artikulua**

Jaiotza-inskripzioaren orri-bazterrean, berebat, aipatu ahal izango dira, ezkontza-sozietatearen ondasun-eraentza aldatzen duten itunak, ebazpen judizialak eta gainerako egitateak.

Kode Zibilaren 1322. artikuluan xedatutakoari kalterik egin gabe, inoiz ez zaio kalterik egingo hirugarren onustedunari, aipamen horren datatik ez bada.

### **78. artikulua**

Erregistro Zentraleko Isilpeko Ezkontzei buruzko Liburu Berezian inskribatuko dira:

1. Elizan egindako kontzientziako ezkontzak, bi ezkongaeik hori eskatzen badute.
2. Lekapen bidez isilpean egindako ezkontza zibilak.

### **79. artikulua**

Hurrengoek bakarrik eskatu ahal izango dute isilpeko ezkontza argitaratzea, eta hala egingo da, Erregistro Zibil egokira inskripzioa lekualdatuz:

1. Bi ezkongaeik, ados jarrita.
2. Alargunak.
3. Ezkontza kanonikoaren kasuan, ordinarioak, sekretuaren betebeharrak kanonikoa berarentzat bukatzen den kasuetan.
4. Ezkontza zibilaren kasuan, zuzendari nagusiak hori agintzen duenean, ezkontideen zitzazioarekin, bata edo

ambos se amparan en el secreto para infringir gravemente los deberes fundamentales del matrimonio o los que tienen respecto a la prole.

### Artículo 80

A petición del interesado o del Ministerio fiscal se anotarán:

1. El matrimonio canónico contraído «in articulo mortis» o sólo ante testigos, en tanto no se certifique canónicamente su existencia.

1. El civil mientras no se acredite debidamente que ambos contrayentes no profesan la religión católica o la libertad de los mismos por inexistencia de impedimentos.

## SECCIÓN III

### DE LAS DEFUNCIONES

### Artículo 81

La inscripción hace fe de la muerte de una persona y de la fecha, hora y lugar en que acontece.

### Artículo 82

La inscripción se practica en virtud de declaración de quien tenga conocimiento cierto de la muerte. Esta declaración se prestará antes del enterramiento.

### Artículo 83

En tanto no se practique la inscripción no se expedirá la licencia para el

biak sekretupean babesten badira ezkontzaren oinarrizko eginbeharrak edo seme-alabei begira dituztenak modu larrian hausteko.

### 80. artikulua

Interesdunak edo Fiskaltzak hala eskatuta, idatzoharraren bidez jasoko dira hurrengoak:

1. «In articulo mortis» egindako ezkontza kanonikoa edo lekukoen aurrean bakarrik egindakoa, horren izatea zuzenbide kanonikoan ziurtatzen ez den bitartean.

2. Ezkontza zibila, behar bezala egiaztatzen ez den bitartean bi ezkongaiak ez direla katolikoak edo ezkongaiok aske direla, eragozpenik ez egotearen ondorioz.

## III. ATALA

### HERIOTZAK

### 81. artikulua

Inskripzioak fede ematen du, pertsona baten heriotzari buruz, zein heriotza horren data, ordu eta lekuari buruz.

### 82. artikulua

Inskripzioa egiten da heriotzaren berri ziurra izan duenak egindako adierazpenaren bidez. Adierazpen hori ehorzketaren aurretik egingo da.

### 83. artikulua

Inskripziorik egiten ez den artean, ez da emango ehorzketarako baimenik;

entierro, que tendrá lugar transcurridas al menos veinticuatro horas desde el momento de la muerte.

Si hubiere indicios de muerte violenta se suspenderá la licencia hasta que, según el criterio de la autoridad judicial correspondiente, lo permita el estado de las diligencias.

#### **Artículo 84**

Deberán promover la inscripción por la declaración correspondiente los parientes del difunto o habitantes de su misma casa, o, en su defecto, los vecinos. Si el fallecimiento ocurre fuera de casa, están obligados los parientes, el jefe del establecimiento o cabeza de familia de la casa en que hubiere ocurrido o la autoridad gubernativa.

#### **Artículo 85**

Será necesaria certificación médica de la existencia de señales inequívocas de muerte para proceder a la inscripción de defunción.

En los casos de que falte certificado médico o éste sea incompleto o contradictorio, o el encargado estime necesario, el médico forense adscrito al Registro Civil, o su sustituto, emitirá dictamen sobre la causa de la muerte, incluso mediante examen de cadáver por sí mismo.

#### **Artículo 86**

Será necesaria sentencia firme, expediente gubernativo u orden de la autoridad judicial que instruya las diligencias seguidas por muerte violenta,

ehorzketa heriotzaren unetik gutxienez hogeita lau ordu igarota egingo da.

Indarkeriazko heriotzaren zantzuak badaude, baimena eten egingo da, agintari judicial eskudunaren irizpidearen arabera, eginbideen egoerak hura ahalbidetu arte.

#### **84. artikulua**

Inskripzioa kasuan kasuko adierazpenaren bidez sustatu beharko dute hildakoaren ahaideek edo haren etxe berean bizi direnek, edo, halakorik izan ezean, auzokoek. Heriotza etxetik kanpo gertatuz gero, behartuta daude ahaideak, edota heriotza zein establezimendu edo etxetan gertatu eta hango agintari edota familia-buru, edota gobernu-agintaritzak.

#### **85. artikulua**

Heriotza inskribatu ahal izateko, beharrezkoa da heriotzaren zeinu nabariak badirelako mediku-ziurtagirian jasotzea.

Medikuaren ziurtagiririk ez dagonean edo hori osagabea nahiz kontraesanekoa denean, edota arduradunak beharrezko baderitzo, Erregistro Zibilar atxikitako mediku forenseak edo horren ordezkioak heriotzaren arrazoiari buruzko irizpena emango du, hilotza bere kabuz aztertzearen bitartez bada ere.

#### **86. artikulua**

Inskripzioa egin ahal izateko, beharrezkoa izango da epai irmoa, gobernu-espedientea edo agintari judicialaren agindua, indarkeriazko heriotzari

que afirmen sin duda alguna el fallecimiento, para inscribir éste cuando el cadáver hubiere desaparecido o se hubiere inhumado antes de la inscripción.

### **Artículo 87**

En tiempo de epidemia, si existe temor fundado de contagio o cuando concurren otras circunstancias extraordinarias, se tendrán en cuenta las excepciones a los preceptos anteriores prescritas por Leyes y Reglamentos de Sanidad o las que ordene la Dirección General de los Registros y del Notariado.

## SECCIÓN IV

### DE TUTELAS Y REPRESENTACIONES LEGALES

### **Artículo 88**

En la Sección cuarta se inscriben el organismo tutelar y las demás representaciones legales que no sean de personas jurídicas y sus modificaciones.

En esta Sección también se harán constar por anotación los hechos y circunstancias que conforme al Código Civil constituyen el contenido del Registro de Tutelas y el Central de Ausentes cuando con arreglo a esta Ley no sean objeto de inscripción.

### **Artículo 89**

Las inscripciones relativas al organismo tutelar se practicarán en el Re-

buruzko eginbideen izapideak egin eta inongo zalantzarik gabe heriotza baieztatzeko, hilotza desagertu denean edo inskribatu aurretik hobiratu denean.

### **87. artikulua**

Izurrite-garaian, kutsatzeko beldur oinarri-duna badago edo aparteko beste inguruabar batzuk gertatzen badira, kontuan hartuko dira aurreko manuei egindako salbuespenak; salbuespen horiek osasun-lege eta -erregelamenduek agintzen dituzte, bai eta Erregistroen eta Notariotzaren Zuzendaritza Nagusiak ere.

## IV. ATALA

### TUTORETZAK ETA LEGEZKO ORDEZKARITZAK

### **88. artikulua**

